

HEZKUNTZA BERRIKUNTZA: ANTZUOLA HERRI ESKOLAKO BILAKAERA BERRIKUNTZA PEDAGOGIKOAREN BIDEAN

Tesiaren egilea: Andoni Arguiñano Madrazo

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Didaktika eta Eskola Antolakuntza

Tesi-zuzendaria: Iñaki Karrera Juarros eta José Miguel Correa Gorospe

Tesiaren laburpena:

Doktoretza-tesi hau, hezkuntza eredu inklusiboak eraikitzean beharrezkoak diren aldagaiak zehazteko helburuarekin burutu da. Horretarako hiru urrats gauzatu dira.

Lehenengo urratsean, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailak babes-turiko hiru hezkuntza-eredu berritzaile arakatu dira. Bertan, ikastetxeek ohiko hezkuntzatik aldentzeko eta egungo gizartera moldatzeko beren hezkuntza-sisteman egindako aldaketak aztertu dira. Urrats hau gauzatzeko etnografia kritikoa burutu da eta emaitzetan, hezkuntza-eredua eraldatzeko ikastetxe mailan, gela mailan eta ikastetxe eta familien arteko erlazioetan egin behar izan dituzten aldaketak azalarazi dira.

Bigarren urratsean, hiru ikastetxe horietako batek lortu dituen emaitza akademi-koak aztertu dira. Helburu horrekin azterketa «Ex post facto» eginda, ikastetxe horretako ikasleek 2010-2011-2013 eta 2015 urteetan ISEI-IVEIk eginiko diagnosi probetan lortutako emaitzak jaso dira eta Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako hizkuntza-ereduetako eta EAEko ikasleek lortutako batz bestekoarekin alderatu dira. Konparaketa horren bidez ikastetxeko hezkuntza-proiektua kompetentzia bidezko ebaluazio-sistemari erantzuteko egokia dela frogatu da.

Hirugarren urratsean, hezkuntza-proiektuaren eraldaketa ahalbidetu duten dimentsioak atzemateko, metodologia komunikatiboa garatu da. Urrats honen emaitzek berrikuntza-bidean gertatzen diren zailtasunak seinalatu dituzte, eta zailtasun horiek gainditzeko ikastetxeak erabili dituen estrategiak identifikatu dira.

